

ETXEBARRIA'tar JUAN ANJEL



MAITALE
GALVA

10

MAITALE GALDUA
(olerkiak)

Etxebarria'tar Juan Anjel



S. Anton'go Katekesia
Euskal - argitalpenak

AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri-Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak I (irarkolan)
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Curutz - Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuñak (2-garren argitalpena irarteko)
12. Batikano II Batzar - Agiriak (Gizarte artuemonetako bideak)
13. Apuntes de Vascuence (Segundo Curso)
14. Lope de Vega - Bakar - Autuak
15. Liturji - Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano-agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)

NEGAR-AURREA

Maite nebana galdu neban. Arrezkero, urrunago bera ta maiteago nik.

Egilleak.

*Burua argi, biotza sakon;
eskuak bigun, begiak alai.
Zuretzat auxe nai dot: zorion
utsa zeruan, lurrean be bai.*

M A I T E A R I

Maitea dozu izena:
soiña argiz egiña,
gogo ontasunez.
Zugana dot griña.

Zure soiñak asetzen
dauz nere begiak.
Zure gogoak nere
biotz-zokondoak.

Maitea, bizitz onen
ondoren zeruan
batu gaizala Jaunak
alkarren ondoan.

ZURE BEGIRA

Illuntzeraiño zure begira
egon nintzan etsi barik.
Illuntzeraiño zugaz pentsetan.
Illuntzeraiño... bakarrik.

Gautu zan guztiz, ene maitea,
zu agertu ez oraindik.
Biotza poztu yatan beingoan:
ezin bizi zu bagarik!

Zorioneko itxoinaldia!
Laster esan bear dautzut:
(urrengoan ez luzatu, arren)
“biotz osoz maite zaitut”.

ZURE AGURRA

Egun luzeko ekin-bearrak
soiñez ta gogoz aulduka,
ustekabea zure ondotik
pasa naz, biotz minduta.

Zure aurpegi alai-gozaok
biotz-barnea leunkiro
igortzi daust ta indarra emon
bideari jarraitzeko.

Nere biziko bakartadean
zure agur samur ori
gogo-ortzean josita daukat
ordu illunen gozagarri.

GAU ATAN

Gau epel atan, izar-argitan,
egon gintzazan luzaro
kontu-kontari, bion asmoak
sakon eta itzak zoro.

Gau epel atan, izar-argitan,
soiña bertan, biotza urrun,
itzakaz poztu, ixiltasunaz
maite-miñez jo ninduzun.

BI-BIOK

Gogo bildurik,
soiña dozu itxia.
Biotzean bake,
aboa irria.

Gogo aulduta,
soiña dot aztuna.
Biotza odolez,
aboa ituna.

Batu dagiguzan—
irri ta odola—
soin-gogoak. Jaso
daigun gure etxola.

ZURE ITZAK

Ezpan-ertza me,
agoa txiki,
itzak, ostera,
sakon ta andi.

Gogo ta biotz,
alakoxeak
bear dituzu,
sakon ta andiak.

Zabaldu eizu
barriz agoa,
ederresteko
zure gogoa.

Esan eidazu
barriz zure itza,
iruntsiteko
zure biotza.

ZUK EZ DAKIZU...

Maitea, zuk ez dakizu
nire ixilkia. Nigaz
aztuta, urruti zabiltz;
amesten beste inogaz?

Maitea, zuk ez dakizu
nire samiñaren miña.
Urruti zabiltz, aztuta,
nirekiko lar muziña.

Al ba'neu esan dan-dana!
Maitea, zuk ez dakizu:
Nire ixilki ta samin
bakarra zareala zu.

Ekatx gogorra dala,
 lasai nagotzu.
 Aldatz-goran ba-noa
 arin-gogotsu.

Bakartadean egon
 arren, pozarren
 naukozu; beti sendo,
 beti sen baten.

Illunpean be pozik
 eta buru-zut.
 Maite, ene biotz-barne---
 muiñetan zaitut.

Ustegabea, nigana
 alabearrez ba'zentoz,
 kutuna! Alabearrez
 edo, obeto, zure gogoz.

Itz gozo bat irakiten
 dabilkit aspaldi ontan.
 Itz sakon batek erre egin
 daust biotza egunotan.

Ustegabea ba'zentoz,
 esango neuskizu dana...
 berba gozo-sakon baten.
 Itz bat... Ba'zentoz... Kutuna!

Zuk ez dakizu zein pozik
nabillen gau ta egunez.
Zuk ez dakizu zelako
sua dodan bero-naiez.

Etorri gura ba'zendu
ikusten bakar-bakarrik.
Gero, joan zaitez zure
bideari jarraiturik.

Une baten soillik eta
zoaz zure bidez, arin.
Unetxo baten bakarrik,
sua amatau ez dadin.

Bizi-bearrak olan
agindu, berton
sen baten jarraituten
dot aspaldion.

Il-bearrak alantxe
gura ta urrun
zaukadaz egunokaz.
Urrun ta urrun, nun?

Ementxe jardungo dot
atxur-lanean.
Urruti iges egingo
egan ta egan.

Ementxe idoroko dot
nire bizitza.
Urrun lurperatuko
nire eriotza.

Bakar-bakarrik
nago bidean.
Itun-itunik
nire barruan.

Orduak arin
doaz aurrera.
Bizitza urrin—
berton, batera.

Zugandik urrun,
zuri josia.
Gogoa astun,
naia bizia.

Emen zaukadaz,
etzaitut bear.
Ba-zoakidaz
eta nik negar.

Etzaitetz joan,
etzaitetz egon.
Izan dagidan
zoritxar ta on.

Zein ete da zure miña,
bidazti bakarti ori?
Nik ez dot miñik, lagunok;
ez galdetu ortaz niri.

Zein ete zure nekea,
bidazti itun ori? Esan.
Nik ez dot nekerik iñoiz.
Ez itandu alperrikan.

Zein ete zure isilkia,
bidazti ixil-oldoxtun?
Nik ez dot ezkutukirik.
Ni nozue... Aren lagun.

Nor, zein ete da Bera? Izen
bat dauka oso bakana,
ez dozue ulertuko.
Neuk soillik dulert: Laztana.

Mendian gora
eguzki-gingan.
Mendian bera
aize-egoetan.

Zelairik zelai
zugaz amesten.
Bidean deslai
zugaz oroitzen.

Gau beltz egiñik,
etxe-bidea
artu-eziñik,
zalantza-unea.

Gorputza sorgor,
gogoa itzar,
begiak amor,
biotzak negar.

Zerua illun,
barnea ixil.
Kanpoan lurrun,
biotza bipil.

Ixil-ixillaz
gogoa ernai.
Itz egin guraz,
erantzunan zai.

Zugaz amesten,
begiak malkoz.
Negar-ondoren
ixil eta poz!

URRUNAGO-NAIA

Gorputza lerdan,
gogo garden.

Oiñak lurrean,
biotza goian.

Itzak oraingo,
naia geroko

daitekenari
dabilkun adi.

Bake-aingeru
maitez loretu.

Zeruan alkar
ikusi bear,

barne ta kanpo.
beti-betiko.

ZURE OROIZ (*Naparroa'ko mendietan*)

Baso itzaltsuan barna
zuganako maitasuna
samurragoa biurtu yatan.
Samurrago zu, kutuna!

Mendi goi-argitsuetan,
biotza maite-garretan,
zureganako maitetasuna
indartsuagotu yatan.

Basoko itzala bai leuna!
Zure begien sakona
atsegiñago yat: ortan dakust
zure barne-edertasuna.

Loretxoak eguzkitan
zabuka mendi-mendian,
apal, bakunik. Olakoxea
irria zure ezpanetan.

Mendiko aizea baizen
garbi zure gogo-almen.
Izadia ez izan zure duin.
Ez, ez da maite-itsumen.

Baso itzaltsuan barna,
mendi goietan barrena
zure irudi-gogorapenak
ekarri eustan zoruna.

Itxi egidazu zure edertasunaz
pentsatzen, maitea. Itxi egidazu...
Ondo ixillean. Inor ez da gutzaz
konturatuko, inor... Bildurroi kenduizu.

Aulkian eseri, Edertasun-jainko.
Ni zure ondoan naz menpeko zintzo.
Onantxe, bakun ta Erregin antzeko.
Zu astru ongille, ni umetxo antzo.

.....
.....
.....

Beiñola, Errege bat zan uri baten.
Bein neskato eder bat jauregira zan
eskean, gaixoa. Gaizki artu eben.
Erregeak, barriz, sarrerazo eban...

Nungoa zara? Nun bizi?, asi yakon
Erregea. Neska gaixoak, lotsarren,
beira begira, Ari: Nere Errege, Jaun on!
—Amarik ez dozu? Geratu zaite emen.

Jauregi atako andera andikiak
bekaitzez, amorruez ebiltzan. Eskale
bat bere emaztetzat artu Erregeak!
Umezurtz bat izan Errege-maitale!

.....
.....
.....

Begira, umezurtz txiro ni izango naz.
Zu Errege altsu, bai, ardura dautsu?

.....

Itxi egidazu zure edertasunaz
gozatzen, maitea. Itxi egidazu...

Etorkizunaz pentsetan nabil
 nere gazte-urteotan,
 etengabeko artegatasun
 sometan nere barruan.

Bai dala luze bizi-bidea,
 illun, ikaragarria.
 Argirik gabe zelan igaro?
 Nork eskeiñiko argia?

Bidean asi baiño lenago
 lagun bat billatu bear.
 Ain bagarik nor ausartuko ote
 illuntasunean zear?

Oi gazte ederra ta zentzuduna,
 —Nai zeunke nigaz etorri?
 Gura zeunke...? Emon, arren, baietza
 nere miñan gozagarri.

Emon zeustan mosu a,
 ezpanetan dar-dar
 daroat eskegita,
 beti barri ta zar.

Emon zeustan mosu a,
 gogoan pozgarri
 daroat bat-batua,
 beti zar ta barri.

Emon zeustan mosu a,
 neure bozkario!,
 biotzean josita
 daukat, min-jario.

BARNE-BARNEAN

Gero ta barrurago
zaut, Maitea, gogoan.

Gero ta josiago,
Maitea, erraietan.

Ezkutau zaitez, urrin.
Aztu nagizu, Maite.
Ementxe zaut nirekin.
Ementxe nozu zure.

MAITEAREN ONDOAN

Bide ondoan bakar
nengoan, zutunik.
Nere gogaiak, azkar
egazka, urrun nairik.

Alboko izakiak
maitagarri nitun...
Urrunean gogaiak
ta biotza itun.

Nere maite eder-ona,
bidean agertuz—
bat, gogaiak zugana
datoz alai, kantuz.

Biotza alai; nere
gogaiak kabian
bildurik, bero, zure
maite-egapean.

M A I T E N A

Basoko pago
garai-sendoan...
Basoko bedar
eta abaroan...

Bai nengokela
zugandik urrun,
zure irudia
dodala lagun!

Oldoxtun luzez
egon ta gero,
barnera adi
ta biotz-bero,

jarriko neuke
zure izena
pago-garrian,
aiztoz: Maitena.

NESKATO SORGIÑA

Bai zareala eder, neskato sorgiña!
Zu ikusiz sortu da nigan Eder-miña.

Arrastion ikusi zaitut ametsetan
lez; uneoro zaitut nere begietan.

Dardar baten ipiñi daustazu biotza;
ezin-egonez daukat bertatik gorputza.

Gauz guztietan dakust zure irudia,
oldozmenetan amets lilluragarria.

Zugaz pentsetan nagon orduen gozoa!
Atsegiñez bai dagoz gorputz ta gogo.

Gabean, zugandiko dirdaiez bildurik,
lo gozoa dagiket, biotza itzarturik.

Bai zareala eder, neskato sorgiña!
Zu ikusiz sortu yat zukanako griña.

Ez naz izango zure jabe: au samiña!
Zaitetz nere Erregin: au bai atsegiña!

ZURE BEGIAK

Zure begiak sakon
eta samurrak.
Zure begiak, nigan
josi-josiak.

Munduaren ederra,
bizitzan guna!
Zure begi gozoen
betetasuna!

MAITASUN IXILLA

Maitasun ixilla,
berba gabea,
maitasun sotilla,
bete-betea.

Maitasun baketsu,
biotz-pozgarri,
maitasun setatsu,
zar eta barri.

Maitasun andi bat
daukat antxiña
gordeta zuretzat,
ixil-samiña.

ZURE ABOTSA

Zure abots a
urrundik jarrai
datorkit. Zure
abots a, alai.

Zure abots au
berton, maitati,
dantzut. Inguru
yabilt, setati.

Ixildu nadin.
Zure abotsa,
etengabe, ene
barruango otsa.